

Azken erregea eta lehen arkeologoa

BABILONIA, K.A. 556. Labashi Marduk errege gaztea kargutik kendu ondoren, Nabonido tronuan eseri zen. Herodoto greziarra lehen historialaritzat jotzen den arren, haren aurretik Nabonidok ere iraganarekiko interes handia izan zuen. Indusketak egiteko agindua eman zuen gainbehera etorritako hiri sumeriar eta akadiarretan, eta horietako batzuetan berak parte hartu zuen zuzenean. Indusketa lan horietan aurkitutako erregeen eta jainkoen estatuak, testuak idatzita zituzten estelak eta bestelako materialak Babiloniara eramanez zituen.

Ustez, haren asmoa objektu horiek toki batean erakusgai jartzea eta herritarrek antzinako erregeen loria miretsi ahal izatea zen; egungo museo moduko bat eraikitzea, alegia. Horrez gain, errege-liburutegiko milaka taulatxoren kopiak egina-razi zituen. Erregealdi guztien kronikak gordetzeko obsesioa zuen eta horretarako hainbat tailer zabaldu eta idazlari mordoa bildu zituen.

Halaber, buztinezko eta betunezko nahasketa berezia asmatu zuen dokumentuak gehiago iraunarazteko. Horri esker Babiloniako errege liburutegia ia osorik iritsi zaigu.

Egungo arkeologoak ziurrenik hotzikarek hartuko lituzteke Nabonidoren indusketa metodologia ikusita; derrigorrezko informazioa bildu baino lehen objektuak testuingurutik ateratzea, esaterako, sakrilegioa da. Baina harengandik izan ez balitz, objektu asko eta bertan bildutako informazioa betiko galduak lirateke. Errege akadiarren berri, esaterako, ezer gutxi jakingo genuke.



BRITISH MUSEUM

Estela honetan Nabonidok errege babiloniarren jantzi tradizionala du soinean, eta zeremonia zetroa eskuetan. Alboan Sin, Ishtar eta Shamash jainkoen sinboloak ageri dira. Lehenaren kultura inposatzeagatik herritarren babesa galdu zuen Babiloniako azken erregeak.

Historiari egindako ekarpenak ekarpen, Nabonido agintari kaskarra izan zen. Hasteko, agintea lortzeko egindako bidea iluna izan zen eta klase boteredunarekin bat egin ordez, haien etsaitasuna irabazi zuen, bereziki apaizena. Marduk jainkoaren kultuaren nagusitasuna eten zuen eta haren ordez Sin ilargiaren jainkoa ipini zuen rankingaren lehen postuan. Horrenbestez, herri xeheak bat egin zuen boteredunekin erregearen aurka.

Halaber, huts larria egin zuen Pertsia Ziro II.a Handiaren kontra Lidiako Kresorekin bat egitean. K.a. 539an Ziro Babiloniako atee- tan konkistarako prest zegoenean, edozein agintarik armada prestatu-ko zukeen erasoari aurre egiteko. Baina Nabonidok beste estrategia bat hautatu zuen: erresumako jain-koen estatuak hiriburuan bildu zituen, jainkozko batzorde hark ar- zoa konponduko ziolakoan. Herri- tarrak Nabonidoren aurka egonik eta harrizko armada alferrikako

harekin, Zioren osteek ez zuten gezi bat bera ere jaurti behar izan Babilonia mendean hartzeko, Bibliak konkis- ta gertaera ia apokaliptiko gisa deskribatu arren.

Herodotok dio Nabonido sutan erretzera kondenatu zutela baina azken unean Zioren barkamena eman ziola. Beste iturri batzuen arabera 539. urtean bertan exekutatuta zuten eta bertsio baikorrenak dio bere azken urteetan bizimodu lasaia izan zuela Karma- nian. Kontua da, azkenean, Nabonido Babi- loniako azken errege penagarri gisa igaro dela hainbeste maite zuen historiari. ■



Arrastoak

Lau milioi litroko ur biltegia antzinako Erroman



ERROMAKO METROAREN C linea eraikitze-ko lanetan, 35 x 70 metroko ur biltegia aurkitu dute. Ziurrenik nekazaritza enpresa baten laboreak ureztatzeko erabili zuten, baina inguruko ibai baten uraldiak geldiarazteko eraiki zutela dioen hipotesia ez dute baztertu. Aurkikuntzak garrantzia du, batetik, orain arte aurkitutako Antzi-

naroko ur biltegiarik handiena delako. Eta, bestetik, San Giovanni auzoan dagoelako; Erroman iraganeko arras- to faltarik egon ez arren, inguru horretan ez dira orain arte Antzinaro-ko egiturak aurkitu. Alde txarra ere badu, metroaren lanak atzeratuko direlako, baina horretan oso ohituta daude erromatarrak. ■